




Larramendi Ikastola



0-18 urte bitarteko hezkuntza integrala

TEL: 94 674 90 80

idadzkari@larramendi-ikastola.net

Madalen Bidea, 20. MUNGIA

www.larramendi-ikastola.eus



**Larramendi
Ikastola**

Alkar ekin, mundurako hezi

Guraso berriei agurra

Ongi etorri beroena eman nahi dizuegu Larramendi ikastolako hezkuntza-proiektua aukeratu duzuen familia berriei.

Denon altxor diren seme-alaben hezkuntza gure konfidantzapean jarri duzue, eta bokazio, esperientzia eta motibazio handiko profesionalen esku dagoela adierazi nahi dizuegu. Pertsonen garapen eta prestakuntza integrala oinarri harturik, ikaslea erdigunean jartzen dugu Larramendi ikastolako Hezkuntza-proiektuan. Era horretara, elkarrekin, familien eta profesionalen arteko elkarlanarekin, lagunduko ditugu seme-alabak haien bidea egin dezaten eta pertsona moduan garatzen.

Larramendi ikastolan 0-18 urte bitarteko hezkuntza integrala eskaintzen dugu. 931 ikasle eta 627 familia biltzen dituen hezkuntza-kooperatiba gara. Ikastola denona da, partaide guztiona.

Hemen hasiko da zuen seme-alaben etorkizuna eraikitzen, lagunen adiskidetasuna, lanerako eta bizitzarako prestakuntza, ... Ikastolan, familiak osorik parte hartzeko aukera dugu. Izan ere, aurrerakoia, parte-hartzailea eta kudeaketa sozialekoa da Larramendi ikastolako proiektua; gure haur eta gazte, familia eta profesionalekin batera aldatuz eta hobetuz doana.

GU Larramendi ikastola!



GU

Larramendi Ikastola

Larramendi Ikastola, 1967an sortua, eta hasierako euskal hezkuntzaren konpromezuari leialtasunez eutsiz, moldatu egin da guraso eta hezkuntza-zerbitzuak hartzen dituzten ikasleen itxarobide berri eta eskarietara, baita ere gizartean gertatzen ari diren eta aurreikusten diren aldaketa eta berrikuntzetara.

Larramendiko hezkuntza proiektua, pertsonan oinarritutakoa da, ikaslearen behar, interes eta eritmo indibidualei erantzuteko. Ikasle bakoitzaren garapen integrala bultzatzea da helburua, haren alderdi kognitiboa, emozionala eta soziala kontutan hartuta.

Larramendi Ikastola hezkuntza arloan garatutako autoeraketa komunitaerioaren eta interkoo-perazioaren praxia da, hezkuntza euskalduna sortu eta garatzea helburu duena, eta ikastolen arteko elkarlanetik hezkuntza-eredu propioa eraiki duena, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan.

IKASTOLA-EREDUA

4
Bereizgarri



Larramendi Ikastola

Bisioa

Larramendi Ikastolaren egitekoaren erdigunea Ikasleak pertsona moduan garatzea da, beraien bitzta zentzuz eta arduraz gidatzeko eta ondo bizitzeko gai izan daitezen. Horretarako,

- Bizitzaren dimentsio guztietan –pertsonala, soziala, akademikoa eta lan mundukoa eraginkortasunez eta arduraz ekiteko, ondo prestatutako eta oinarri sendoko pertsonak hezi nahi ditugu.
- Pertsona osoaren garapenaren oinarriak -gizabanako, gizarte kide eta izadi kide gisa- era orekatuan finkatu nahi ditugu.
- Bizitzarako ezinbestekoak diren funtsezko konpetentziak bikaintasunez eskuratzen dituzten pertsonak nahi ditugu.
- Euskal Herrian eta munduan bizitzeko euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu dituzten eta euskara ardatz duten pertsona eleaniztunak hezi nahi ditugu.
- Goragoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko eta bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibazioa duten pertsonak hezi nahi ditugu.



Balioak

Larramendi ikastolaren izaeran oinarrituz eta bere egitekoa betetzeko ondorengo balioak lehenesten ditugu:

- **Euskalduna:** Euskal Herriko hezkuntza eta kulturarekin konprometitutako taldea.
- **Gizarte ardura:** gizartearen eraldaketa eta garapenaren paper garrantzitsua betetzen dugu. Mungia, inguruko herri eta ingurumenarekiko konpromiso sendoa.
- **Gardentasuna:** informazio eta komunikazioan, arazoan aurrean eta kudeaketan.
- **Erlazioak:** eragile ezberdinen arteko ulermena eta adostasuna erraztu eta konfiantzan oinarritutako erlazioak.
- **Errespetua:** aniztasunera irekiak, ezberdinen aurrean tolerantzia eta elkar ulertzea. Denen artean, interes talde bakoitzaren barruan eta interes talde ezberdinen artean.
- **Parte-hartzea:** proiektu partekatua. Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztiona.
- **Elkarlana:** ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztion artean osagarritasuna, talde-lana eta esfortzu partekatua.
- **Profesionaltasuna:** egiten duguna era egokian eta erginkortasunez egitea. Etengabeko hobekuntza, prestakuntza eta zerbitzurako jarrera.
- **Berrikuntza:** etorkizunari aurre hartuz, bide berriak zabalduz, modu irekian, malgutasunez, guztion artean eraikiz.
- **Erantzukizuna:** partekatua, bakoitzak bere esparruan. Adosten ditugun helburuan eta egiten ditugun ekintzen arteko koherentzia. Barnera eta kanpora begirako ardura eta sinesgarritasuna.



Izaera

Larramendi ikastola guraso Hezkuntza Kooperatiba da, erakundearen titulartasuna kooperatiba osatzen dugun gurasoena izanik. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta bere helburu bakarra bazkideei eta herriari zerbitzua ematea da. Instalazioen jabetza kooperatibarena da eta kooperatibak kontratatzen du behar duen pertsonala bere jarduera aurrera eramateko.

Seme-alaba ikastolan ikasten hasten denean, gurasoek ekarpen ekonomikoa egiten dute eta bazkide bihurtzen dira. **Bazkide bakoitzak, partaidetza bat du kooperatiban eta denek dute partaidetza berdina.**

Kooperatibaren organo gorena **Batzar Orokorra** da. Bertan bazkide guztiek dute partze hartzeko eskubidea eta beharra. Batzar Orokorrak hartzen ditu erabaki nagusienak (urteko ekarpena, kuotak, inbertsio handiak, plan nagusien onarpena, kontuen onarpena, kooperatiba ordezkatzeko duten organoen aukeraketa, ...).

Batzar Orokorra gutxienez urtean behin batzen da. Batzar Orokorrak **Kontseilu Errektorea** aukeratzen du, honen ordezkapen lanak egiteko eta gobernu lanetan aritzeko. Kontseilu Errektorean kargu ezberdinak daude: lehendakaria (ordezkapen maila handiena duena), lehendakari ordea, diruzaina, idazkaria eta bokalak. Guztira 12 kidek osatzen dute Kontseilu Errektorea. Bertan, batzorde ezberdinak osatzen dira (Gobernu batzordea, ekonomia, eskolaz kanpokoak, kirola, zerbitzuak, hezkuntza, ...).

Zaintza Batzordea ere aukeratzen du Batzar Orokorrak, kooperatibaren funtzionamendu orokorra eta kontuak ikuskatzeko.

Kontseilu Errektorea, **Zuzendaritza Taldea** izendatzeko eta kontratatzeko ahalmena du, eguneroko kudeaketa lanetan laguntzeko.



Hezkuntza markoa

Larramendi Ikastolaren hezkuntza-eredua pertsonaren garapenean zentratutako proposamena da. Gure egitekoa pertsona bere dimentsio guztietan (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existenziala, ...) garatzen laguntzea da, askotariko eremuetako ezagutzak eraikitzen laguntzetik haratago. Egiten ikastetik harago, izaten ikasteko hezkuntza-proposamena da.


Pertsona-ereduaz ari garenean, bereizgarri jakin batzuez ari gara, baita bereizgarri horietako bakoitza definitzen duten ezaugarri multzoez ere. Hau da, bizi dugun, aurreikusten dugun eta eraldatu nahi dugun errealitate horretako pertsonak zer tasun izatea nahi dugun zehazten dugu.

Pertsona-eredua hezkuntza-proiektuaren elementu nagusia da eta haren zerbitzura daude gainerako elementuak: curriculum, printzipio psikopedagogikoak eta metodologikoak eta hezkuntza-ildoak.

PERTSONA-EREDUA

{ 5
Bereizgarri

{ 18
Ezaugarri



PRINTZIPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK

15
Printzipio

Printzipio psikopedagogikoak ikerketa zientifikoan oinarrituta daude eta praktika pedagogikoa orientatzen eta sostengatzen laguntzen dute.

PERTSONA

- Ikastoletan ikasleak baino gehiago ikastera datozen pertsonak ditugu.
- Pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina da eta bizitza osoan zehar garatzeko gaitasuna du.
- Pertsonaren garapen ebolutiboa aintzat hartu behar dugu geure esku-hartze pedagogikoan.
- Ikas-prozesua ahalbidetzen duten baldintzak sortzen laguntzen dute oreka emozionalak eta autoirudi doituak.

TESTUINGURUA

- Denok dugu ikasteko gaitasuna testuinguru berean elkarrekin lan eginez.
- Hierarkien eragina taldeen osaketan, orekan eta kudeaketan.
- Espazioaren eta denboraren antolaketa ikaskuntza-prozesuaren zerbitzura egon behar da, ez alderantziz.
- Elkarrekin ikasten dugu hizkuntzaren, pentsamenduaren eta komunikazioaren bidez.

IKAS-IRAKASKUNTZA

- Eskola, haurren eta gaztearen heziketarako berariazko erakundea izanik, gataska kognitiboak sortzeko gune pribilegiatua da.
- Ezagutza berriak pertsonaren garapen-zonalde hurbiletik eraikitzen ditugu.
- Feedbacka, tresna eraginkorrenetakoa da.
- Akatsa, ekidin ezina izateaz gain, aukera paregabea da ikasteko.
- Informazio berria integratzen dugu lehendik dakigunarekin konektatuz.
- Helduon modelatze- eta aldamiatze-lanaren garrantzia.
- Arrakasta bermatzea ezinbestekoa da pertsona garatu ahal izateko.



HEZKUNTZA-ILDOAK

{ 10
Ildo

Hezkuntza-ildoak definitu dugun pertsona-eredua garatzen laguntzeko ikastolako lerro pedagogiko orokorrak dira, modu koherentean eta bateratuan lan egiteko.

Larramendi Ikastolan geure egiten ditugu Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrean jasotzen diren hamar hizkuntza ildo nagusiak.

- Euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza-eredua.
- Garapen pertsonala.
- Erabakitzeko gaitasuna garatzeko testuinguruak.
- Ikuspegi eta estrategia inklusiboak.
- Ebaluazio hezitzailea.
- Testuinguru errealetan eta ikerketa-ekintzan oinarritutako dinamika globalizatuak.
- Ebaluazioaren kultura.
- Hezkuntza-komunitate kohesionatu, bizi eta sendoa.
- Irakaskidetza.
- Berdinen arteko ikaskuntza.



Proiektuak

Hizkuntz proiektua



Izan zirelako gara. Bazara, izango dira.

Ikastolaren Hizkuntz Proiektua, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa da. Hizkuntzekiko lan-tresna integrala izanik, Ikastolaren komunikazio-testu-in-guru osoan eragingo du: ikaskuntza-irakaskuntzan, eskola-komunitatearen harremanetan eta ikastola txertatuta dagoen gizarte hurbilerko harremanetan.

- Hizkuntzen trataera:
 - Gaztelania
 - LH 3.mailan hasita
 - Ingelesa
 - Eleanitz proiektua, 2 urtetik aurrera
 - Social Science DBH 3-4 mailetan
- Irakurketa estrategia
- Prentsa tailerra. Larramendi Report proiektua
- Bertsolaritza
- Euskal ekintza kulturalak



Bizikidetza

Oinarrizko eskubideak, askatasuna eta elkarbizitza hobetzen

Ikastolako Bizikidetza planaren xedea, hezkuntza proposamenen bidez, ikastolak oinarrizko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkorra izatea da, partaide guztion eta bereziki ikaskideen arteko harremanak hobetzeko.



- Eskola jazarpenaren prebentziorako programa
- Ikaslearen ongizate emozionalerako programa
- Ikasleen bitartekaritza programa



EA 2030

Giza garapen jasangarrirako hezten

Ikastolaren jasangarritasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da, eta udalerriko garapen jasangarrian esku hartu eta laguntzen du. Ingurumen-hezkuntza programa bat denez, ingurumen-arazoaren konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da xede nagusia.

- Ortua
- Urmaela
- Mikroplastikoak
- Kutsadura
- Ekoarautegia
- Tailerrak



Plan Digitala

Ingurune teknologiko eta digitaletan trebeak diren ikasleak

Ikasleen konpetentzia digitala, irakaslearen gaitasun digitala eta administrazioaren kudeaketa Europako DIGCOMP markora egokitzea da honen helburua. Horretarako markoak ezarritako bost atalak garatzen ditugu: informazioa, komunikazioa, edukien sorkuntza, segurtasuna eta arazoaren bideratzea.



STEAM

Etorkizuneko konpetentziak garatuz, sormena eta zientzia uztartuz

Zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematika arteekin eta humanitateekin lotuta integratzen ditu STEAM proiektuak. Ikasleak funtsezko konpetentziak garatzen ditu, gure gizartearen erronkei modu arduratsuan aurre egiten lagunduz.

Larramendi Ikastolak Europako STEM School Label akreditazio-prozesuan parte hartzen du. Errekonozimendu honek STEM arloetan (zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikak) eginiko lanari merezitako aitortza egiteaz gain, ikas-irakaskuntza praktika berritzaile eta eraginkorrak diagnostikatzen eta aitortzen ditu.



valid until 04/2026

This school has been awarded with the Proficient STEM School Label



- Astronomia behaketak
- Uraren zikloak
- Kristolografia
- Sky marbles
- Zubien eraikuntza lehiaketa
- First Lego League
- Zientzia Azoka
- EKImaker
- SALL proiektua
- Forensic Science



Etapa bakoitzeko egitura

HAUR HEZKUNTZA (0-6 urte)

Hazi geugaz

Etapa honek, umearen garapen integrala finkatzeko oinarri sendoak garatzea du helburu, pertsona moduan beharrezkoa dugun arlo afektiboa asebetetzetik abiatuz.

Etorkizunean arrakasta izateko pertsonarentzat funtsezkoak diren oinarrizko gaitasunak eta trebetasunak batik bat finkatzen dira etapa honetan: sozializazio-gaitasunak, emozio-gaitasunak, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun motorrak, zentzumen-gaitasunak, pentsatzeko gaitasunak eta autonomia.

Haurrari berezko dituen kompetentziak garatzen eta aberasten lagunduko diogu, printzipio hauetan oinarrituz: haurraren izate osoaren errespetua, konfiantza haurraren berezko garapen ahalmenean, haurraren ziurtasun fisikoa eta emozionalaren bermea. Haurraren izate osoa errespetatuz, irakaslea haren bidelagun izango da.



LEHEN HEZKUNTZA

(6-12 urte)

Hezi geugaz

Oinarrizko gaitasunak (sozializazioa-gaitasunak, emozio-gaitasunak, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun motorrak, zentzumen-gaitasunak, pentsatzeko gaitasuna eta autonomia) finkatzeaz gain, etapa honen helburu nagusia bizitzako egoeren azerketa arrazionala eta objetiboa egiteko gaitasunak garatzea da.

Horretarako, ikasleen garapen akademikoan, pertsonalean eta sozialean oinarritzen gara, talde lana, erantzukizuna, autonomia eta interes eta talentu indibidualen aurkikuntza eta garapena sustatuz.



DBH

(12-16 urte)

Osoitu geugaz

Etapan honetan oinarrizko gaitasunak (sozializazio-gaitasunak, emozio-gaitasunak, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun motorrak, zentzumen-gaitasunak, pentsatzeko gaitasuna eta autonomia) garatzeaz gain, helburu nagusia egunerokotasunean eta etorkizunean aurkitu ahal dituzten egoerei aurre egiteko ezagutzak eta kompetentziak eskuratzea da.

Ikasle konpetenteak hezten ditugu, egoera errealean ebazpena, ikaskuntza kooperatiboa, proiektu bidezko ikaskuntza eta oinarrizko trebetasunak garatzen dituztelarik. Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen, aukeratzen eta erabiltzen ohitzen dira; irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta talde lanean aritu, arazoaren soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatuz.

Ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikaslearen autorregulazioari eta ebaluazio hezitzaileari garrantzia emanez, irakaslea bidelaguna izanik.

Ikasleen banakako jarraipena eta orientazioa, kotutoretza bitartez egiten da.



BATXILERGOA

(16-18 urte)

Gauzatu geugaz

Etaa honetako helburu nagusiak erabaki pertsonal eta sozial egokiak hartzea eta ikaskuntza bizitza osoko prozesua dela ohartzea eta barneratzea dira. Horrela, etorkizuneko erronka pertsonal, sozial, akademiko eta lan mundukoet aurre egiteko konpetentziak garatzen dituzte.

- C1 azterketarako prestakuntza.
- Begirale titulua lortzeko azterketa ofiziala.
- Orientazio akamedimoa eta profesionala.
- Hainbat unibertsitateetara eta lanbide heziketa zentroetara bisitaldiak.
- Unibertsitate, ikasle ohi eta adituen saioak ikastolan bertan.



ESKOLAZ KANPOKOAK

Hizkuntzak

- Ingelesa
- Frantsesa

Musika

- Gitarra
- Trikitixa eta panderoa

Bestelakoak

- Robotika
- Bideo-jokoen programazioa
- Arte eszenikoak
- Sormen artistikoa
- Euskal dantzak (gurasoentzat ere)

Kirolak

- Multikirola
- Psikomotrizitatea
- Dantza modernoa
- Irristaketa
- Saskibaloia
- Futbola
- Atletismoa
- Child play yoga
- Nerabeentzak yoga-mindfulness
- Eskupilota
- Eskalada
- Txiki box
- Boxeo Kicb.

ZAINTZA ZERBITZUA

Orduategia: 07:30-09:00 goizez eta 16:00-17:30 arratsaldez.

Egun solteetan erabiltzeko aukera eskaintzen dugu.



AUTOBUS ZERBITZUA

Mungia eta Mungialderako autobus zerbitzu zabala.

- Mungia
- Mungiako auzoak
- Bakio
- Meñaka
- Maruri-Jatabe
- Gatika
- Laukiz
- Gamiz-Fika
- Fruiz
- Arrieta
- Gorliz
- Lemoiz (Andraka)
- Larrabetzu
- Lezama
- Zamudio
- Derio

JANTOKIA


Larramendi Ikastolan egunero gure jantokian zerbitzatzen diren menuak egiteko sukaldariak ditugu.

Bazkal aurreko eta osteko esperientzia eraldatzeko asmoz, Patio Plana jarri dugu martxan. Honen bidez hiru helburu nagusi lantzen ditugu:


- Euskararen erabilera indartzea.
- Jolas kooperatiboak, konfiantza jolasak erabiliz ikasleen arteko elkarbizitza hobetzea.
- Jolasaren bidez ikasleek ongi pasatzea.

Elikadura ikastolan



Ikastolako sukaldariak egindako menuak eta askórako nutrizionistek gainbegiratutakoak




Larramendi Ikastola
Alkar elin, mundurako hezi




Lehengaiak


 Lehen platerak Bi plater aukeran, bietako bat beti barazkia izanik	<ul style="list-style-type: none"> › Lekaleak astean bitan › Barazkiak astean behin › Zerealak, pasta eta patata astean bitan
 Bigarren platerak	<ul style="list-style-type: none"> › Arraina astean behin › Arrautza astean behin › Txahala, txerria eta hegazti haragia astean behin




Eskualdek produktu eta errezeta tradizionalak



Nafarroako oliba olioak

















Tokiko hornitzaileen haragia



Etxeko elaborazioak

Menuetan txertatutako alergenak


						
						

Haur eskolako menuaren garapena

Umeen garapena eta ohituren baitan, menuan aldatetarik egiten joango dira: pureetatik hasita, elikagai solidoak barneratzen joango dira oinarritzko menua jatera iritsi arte (lehen platera+bigarren platera+postrea).

Errepikatzeko irizpideak

Ikasle batek menu bateko lehen platerra edo fruta errepikatzeko aukera izango du beti ere lehen eta bigarren platerrean jaten badu. Bigarren platerako gramajea bere adinaren arabera egokia izan behar da.



ORDUTEGIA

HAUR ESKOLA

SARRERA: 07:30-9:30

BAZKARIA: 11:45-12:30

LO KULUXKA: 13:00-15:00

IRTEERA:

11:30-11:45 bazkaltzera etxera joanez gero

12:45-13:00 lo kuluxka egitera etxera joanez gero

15:30-17:30 lo kuluxka egin ostean

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

ORDUTEGIA: 9:00-16:00

DBH ETA BATXILERGOA

ORDUTEGIA: 8:00-15:15